

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 17a / 525. zenbakia

Fraggle Rock

Ednis

Spok

Frenopatics

Goikeroek

Aitzoi Mujika

Black Sheeps

Zaztada

Gazte Lokala

Ostia da Oil

X-At

Requiem

Goof Panic

Zartateko

Muxkixu

Uko

Chocolate Revenge

Daxka

Factoria 77

Extorsion

Bost Axela

Fly Shit

Elebators

N.C.M.

Pept eta Gabi

Exit

Dog Bit

Angiolillo

\*Supercools

Fucking What

Jihad

Hiru Puntuak

Destrucción

Dixie

Saturno

HERRIKO 35  
TALDEREKIN  
OSATUTAKO CD  
BIKOITZA  
KALERATU DU  
GAZTETXEAK,  
ASTINDU  
FANTZINEAREKIN  
BATERA

ISILTASUNA APURTZEN



ERAKUSKETA: 'DROGAK: GIZARTE GAIA', KULTURA ETXEAN/5 • PILOTA: GORKA MARTINI ELKARRIZKETA/10



29€

*bonardi*  
monturak

...bat aukeratzea bakarrik gelditzen zaizu

R.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

**MULTIOPTICAS**

*beti zurekin*



**BERGARA**  
Tel. 943 76 15 75



**ARRASATE**  
Tel. 943 79 29 95



**ORDIZIA**  
Tel. 943 88 99 88



**EIBAR**  
Tel. 943 20 05 22



**ERRETERIA**  
Tel. 943 51 78 11

Euskara "txinoa" bada zuretzat


...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,  
txirrinduila, dulai...



**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
...

Ni txirrinduan  
nabil.



HABEren dirulaguntzaz

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**



- Eskaintza: Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, EGA eta EGAtik gorakoa. Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, enpresa... MULTIMEDIA gela.
- Erritmoak: Eskarien arabera. Galde ezazul
- Bulego Ordutegia: 8:30 - 13:00 eta 14:30 - 18:30.
- Matrikulatzeko epea: Urtarrilaren 20tik 31ra.
- 16 urtetik gorakoendako.
- Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13, BERGARA. Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net

**ATREBENTZIAEZPADA/ Ze da, zeure ustez, drogia? Ze substantzia sartzen dittuzu drogen barruan?**



**PABLO BIZIOLA**  
60 urte




**MARIA JOSE CARMONA**  
48 urte



**MARIA JESUS FERREIRO**  
33 urte



**ANA CABEZAS**  
41 urte



**GORKA PÉREZ**  
31 urte



**LUCIANO ARDUA**  
61 urte

Porruak, pastillak, heroinia, kokainia... Horrek danok. Alkohola be droga mota bat da, eta kafia be izan leike. Baiña batzuen eta bestien ondorixuak ez die berdiñak.

Beti entzutzen dienak: kokainia, heroinia... Beste substantzia batzuk be bada-re onak ez dienak; tabakua, esaterako. Baiña asko har-tu bihar da bestiek egitten dabekaltia egitteko.

Menpekotasuna egitten dabekaltia egitteko. Menpekotasuna egitten dabekaltia egitteko. Menpekotasuna egitten dabekaltia egitteko.

Printzipioz, sailkapenik egin barik, neure ustez, edozein substantzia aldatzen dabena gorputzaren martxa normala. Kafetik hasi eta oingo droga sintetikueta-raiño.

Telebisiñua! Kar-kar-kar. Nik uste dot droga dala gorputzari kaltia egitten dotsan edozein substantzia. Batzuk aipatziarren, kokainia, heroinia, alkohola... Eta beste hainbat dare.

Gauza asko die drogia. Dana dala, mailla ezberdiñak dabela pentsatzen jat. Kokainia eta holakuak oso txarrak die. Alkohola be bai, baiña, luzera, kaltia txikixagua dala uste dot.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK EDUKIONTZIAK GAINEZKA** Ez da lehenengo aldia irakurleen bat paper eta kartoi edukiontzia gainezka egoten direlako kexatzen dela. Behin, Masterrekako auzotar bat kexatu zen. Oraingoan Barrenkaleko irakurle bat kexatu da, Gaspar jatetxearen ondoran dagoen edukiontziaz. Gutxiegitan hustutzen dutela dio, eta ondorioz, papera eta kartoiak lurrean egoten dela. /M.B.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /11

KULTURA /12

**Herriko musika taldeen CDa**

Gaztetxeak CD bikoitza kaleratu du herriko 35 talderen kantuekin *Astindu* fantzinearekin batera.

**Gazte mutilen eskubaloia**

Bergara KEko gazte mutilen eskubaloia taldeak Arrate hartuko du domeka eguerdian kiroldegian.

**David Azurtza zuzendaria**

*Oliver* musikala Bilboko Euskalduna jauregian egin ondoren, emanaldien balorazioa egin du.

**ASTEKO DATUA**

**35**

**BERGARAK LEHEN ITZULIAN LORTUTAKO PUNTUAK**

Bergara KEko preferente futbol taldeak 35 puntu lortu ditu lehen itzulian. Igoera lortzeko borrokan dira Juanina Garairen jokalariek. Bihar, zapatua, Pasajes liderrari bisita egingo diote.

**BESTEKE SANA**

**“** Oraingo egoera, gogorra oso, baina Lizarra-Garazi denborakoa baino hobea –edo itxaro-pengarriagoa, bederen– dela entzuten dudanean, neure buru-osasunaz zalantzak sortzen zaizkit. Guztiz kaskalduta ote nago, errealtatea hain desberdin ikusteko? Non geunden eta non gaude? Dena amesgaizto bat izan ote da? Halakoetan, “Desobedientzia da bidea” hormetan idazten hasteko tentazioa etortzen zaio bati, baina hobeto pentsatuta, “bide bat” jartzea zuzenagoa litzateke, kontaezinak baitira jaunaren bideak. Garbi dago botereari hartzak erakutsi behar zaizkiola, borroka instituzionala, sindikala eta abar ez direla aski egoerari buelta emateko. **JUAN MARTIN ELEXPURU/ Aralarako kidea eta idazlea ‘Argia’/03-01-19**

**BERAIEKDIÑOÈ/ Lander Juaristi**



*Isiltasuna apurtzen*

**G**aztetxe berriak urte eta erdi zeraman kartzela zaharrean 2001. urtean eta gure ideiak barruan preso gera ez zitezen ihes bidea ireki genien; *Astindu* fantzinea sortu genuen. Gazte Asanbladak bere iritziak plazaratzeko, idatzizko komunikazio kanal propio baten beharra sumatu eta kontrainformazioa lantzeko talde bat sortzea erabaki genuen. *Astindu* fantzinea, Gazte Asanbladaren lanak ahalbidetu duen proiektua izan da. Gure helburua garbia izan da: komunikazio tresna bat sortzea! Ohituta gaude prentsa irakurtzen edo telebista ikusten, baina zergatik ez gure iritziak idatzi, axola zaizkigun gaiak plazaratu, egindako lanaren berri eman? Entzule edo irakurle izatetik, komunikazio prozesuan aktibo izateko aukera gutxi eskaintzen dizkigu sistemak (irakurtzen zaudena adibide gutxietariko bat), eta guk badaukagu zer

esan, baita herriko beste kolektiboek, edo norbanakoek ere! Apurtu dezagun isiltasuna, zergatik utzi informazioa gutxi batzuen eskuetan? Herriko musika mugimenduan, antzeko zerbait ikusten genuenez, hau da, herriko gazte askok mila oztoporen gainetik (ekonomikoa, entsaio lokal eskasia...) bi hamarkada hauetan taldeak sortzen aritu dira, komunikazio bideak eta ondo pasatzeko momentuak sortuz. Ezkutuan gelditzen den lan hori erakusteko eta bultzada emateko egin dugu *Isiltasuna apurtzen* proiektua. Nabarmentzekoa iruditzen baitzaigu egoera kaxkar horretan hainbeste talde egotea. Bi gauza argi genituen, batetik, autogestioan oinarritutako lan bat izatea, auto-produkzio bat. Eta bestetik, salneurria herrikoia izatea: gastuak kubritzeko izatea. Beti ere, kanal komertzialetatik kanpo zabalduz eta gure kanal alternatiboak erabiliz herriko musikarien lana zabaltzeko helburuarekin.

**“Ezkutuan egon den herriko musika taldeen lana erakusteko egin dugu *Isiltasuna apurtzen*”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 17**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**ZAPATUA, 18**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**DOMEKA, 19**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**ASTELEHENA, 20**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**MARTITZENA, 21**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**EGUAZTENA, 22**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

**EGUENA, 23**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa .... 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa .... 943 76 62 46

Ertzaintza .... 943 76 53 40

Osasun etxea .... 943 76 24 40

Asepeyo .... 943 76 16 43

Pakea .... 943 76 13 49

Angiozarko medikua .... 943 78 90 27

Antzuolako medikua .... 943 76 62 23

Odol emaleak .... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**

Taxiak .... 943 76 19 50

**UDALA**

Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46

Udal Artxiboa .... 943 77 91 32

Igerilekuak .... 943 76 20 51

Kultura etxea .... 943 77 91 58

Liburutegia .... 943 77 91 62

Kirolegia .... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

Epaitegia .... 943 76 14 92

Erregistroa .... 943 76 13 15

Jardun .... 943 76 36 61

Idolaz .... 943 76 65 08

Erretiratuena etxea. Bergara. .... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuena elk. .... 943 76 62 71

Postetxea .... 943 76 26 85

Bedelkar .... 943 76 04 68

Akulu AEK. .... 943 76 05 18

Udal Euskaltegia .... 943 76 44 53

Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>San Pedro</b>	<b>Labegarieta</b>
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	<b>San Lorentzo</b>
Zapatuak eta	Zapatuak:
lanegunak: 19:00.	20:00.
<b>Sierbak</b>	<b>Angiozar</b>
Lanegunak: 19:15.	Domekak:
Zapatuak: 19:00.	11:30.
Domekak: 11:30,	<b>Moja</b>
13:00.	<b>Zaharrak</b>
<b>Osintxu</b>	Lanegunak: 9:00.
Domekak: 12:30.	Zapatuak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	<b>Mizpirualde</b>
<b>Elosu</b>	Lanegunak: 11:45.
Domekak: 10:30.	Zapatuak: 17:30.
<b>Ubera</b>	<b>Antzuola</b>
Domekak:	Domekak:
10:30.	09:00, 11:30.
<b>San Juan</b>	Zapatuak eta
Domekak: 11:00.	lanegunak: 19:30.
<b>Elorregi</b>	<b>Uzarraga</b>
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.

**URTE-MEZAK**

**Santa Marina**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

**San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**1956AN JAIOTAKOAK**  
1956an jaiotakoen afaria urtarrilaren 25ean, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan.

Aurretik, 19:30ean, frontoian elkartuko dira eta 20:15ean, taldeko argazkia aterako dute. Izenematea, Azpeitxi jatetxean, urtarrilaren 18ra arte, 943 76 55 00 telefono zenbakian.

**BEART-EKOAK, MADRILERA**  
Beart artisten elkarteak otsailen Madrilgo ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera otsailaren 14an (egubakoitza, 19:30ak aldera) egingo dute eta itzulera otsailaren 16an (domeka) izango da. Argibideak: 635 71 32 69.

**ETXEBERRIA ERLOJUTEGIAREN ZOKKETA**  
Etxeberria erlojutegiak egindako zozketan zerbaki hauek izan dira sarituak: 9.134 zerbakiak jasoko du lehen saria (1.200 euroko erosketa bonoa) eta 4.899 zerbakiak bigarrena (600 euroko bonoa).

**LOKATZAKO LOTERIA**  
Lokatzen loterian 12.943 zerbakiari jokaturakoa tokatu da. Saria eskuratze-ko Euskadiko Kutxatik pasatu beharko dira txartelaren jabeak. Bestalde, loteria txartelekin bi sariren zozketa ere bazegoen: hain justu, 8.103 zerbakiari mendiko bizikleta tokatu zaio eta 9.576 zerbakiaren jabeak bi lagunendako afaria irabazi du. Sariak eskuratzeko epea urtarrilaren 24an amaituko da.

**IPINTZAKO LOTERIA**  
Ipintza Institutuko DBHko 4. mailako ikasleek ikaske-ta-bidaiarako Gabonetan saldutako loteria zerbakiari (9.563) jokaturakoa tokatu da. Saria eskuratzeko Euskadiko Kutxatik pasatu beharko dira txartelaren jabeak.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Miguel Altuna Institutu berriaren obrak, hastear**

Lanbide Heziketa Eskola berria eraikitzeke lanak hastear zeduten 1993an, urtarrilean. Boni Lascurain kaleko institutua 1994-95 ikasturterako gertu egotea zehaztu zuten. Aurrekontua 500 milioi pezetakoa izan zen, Eusko Jaur-laritzak ordainduta. Bergarako Udalak lurra utzi zuen.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Topekaria"*



Burukada, burukoa (buruan hartutako kolpea).

**ASTEKOFILMAK**

**'KAMCHATKA'**  
ZUZENDARIA: MARCELO PIÑEIRO. AKTO-REAK: RICARDO DARIN, CECILIA ROTH.

**HARIA.** Marcelo Piñeiroren film honek harrera ona izan du, eta, hori gutxi izango balitz, Argentina ordezkaturako Oscarretan. 1976ko diktadura dela-eta ezkutatatu egin beharko den bikote baten istorioa kontatzen zaigu.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**'DRAGON HILL: LA COLINA DEL DRAGON'**

ZUZENDARIA: ANGEL IZQUIERDO. GIDOIA: ANTONIO ZURERA.

**HARIA.** Duela ehunka urte, Lurreko herensugeak fantasia mundu baten ezkutatu ziren, gizakien gaiztakeriatik babesteko. *Ethelberg* herensuge zaharrak gordetzen du mundu horretako giltza bakarra eta bertako sekretua...

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b>			
Martitzena, 14			<b>-3 °C</b>
<b>MAXIMOA</b>			
Eguaztena, 8			<b>11 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>			<b>23,6</b>
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 8	11 °C	4 °C	5,7
Eguena, 9	5 °C	5 °C	14,0
Egubakoitza, 10	4 °C	2 °C	0,5
Zapatua, 11	7 °C	0 °C	2,6
Domeka, 12	4 °C	1 °C	—
Astelehena, 13	8 °C	-1 °C	—
Martitzena, 14	9 °C	-3 °C	—

San Juan auzoan jasotako datuak

**BERGARA**  
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

**GIZARTEA/** Drogekin lotutako zazpi gairen gainean egituratuta dago erakusketa; gaiok azaltzeko, argazkiak eta ikus-entzunezkoak daude erakusketan

# 'Drogak: gizarte gaia' izeneko erakusketa, astelehenetik aurrera, kultura etxean

MONIKA BELASTEGI


**Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzak antolatutako erakusketa da, eta Udaleko Gizarte Ongizateak ekarri du gurera. Erakusketa ibiltaria da; ibarreko herri guztietara eramango dute. Drogekin lotuta dauden zazpi gaitan egituratuta dago erakusketa.**

Erakusketaren helburua da drogen gaia gizarteratzea, herritarren begien aurrean jartzea, Arantzazu Loidi Udaleko drogamenpekotasun teknikariak azaldu duenez. Azken baten, "gizartean eztabaida pizteko eta hausnarketarako bide izateko".

Urtetan drogen gaia ikuspuntu bakarretik aztertzeke joera egon dela adierazi du Arantzazu Loidik, nahiz eta "mila alderdi dituen gaia izan". Hala ere, "eboluzioa izan duen gaia" ere badela gehitu du, eta drogez jardutean ezinbestekoa dela "kontuan hartzea gaiaren konplexutasuna eta faktore asko dituela". Ildo horretatik, drogekin lotura zuzena duten zazpi gairen gainean dago egituratuta erakusketa: *Alkohola edaten hasten direnak; alkohola aisialdian; Penalizazioa eta despenalizazioa; Drogak eta marjinazioa; Drogak, osasun-arazo; Harrera-etxeak; Kalteak txikitzea; eta Dopinga kirolean.*

## HAINBAT ARGAZKI ETA IKUS-ENTZUNEZKO

Gai horiek guztiak azaltzeko hainbat argazki egongo dira erakusketan, gure inguruko hiriburuetan -Bilbo, Donostia eta Gasteiz- Kim Manresa argazkilariak aterako argazkiak, hain justu ere. Gainera, gai bakoitzak idatzizko azalpena ere izango du.



AITOR URIZAR

Aste honetan Arrasateko Monterron jauregian egon da erakusketa. Bergarako amaitu ondoren bailara zeharkatzen jarraituko du.

Erakusketan emango den informazioaren kasuan, artikulu ugari irakurri eta aztertzeke aukera egongo da. Horiek, esaterako: *Droga -zer da droga, drogaren historia, substantziak, ondo-*

*rioak eta arriskuak, legea eta droga-; Drogamenpekotasuna eta droga eta gizarte -kartzela eta droga, alkohola eta trafikoa.*

Horrez gain, ikus-entzunezko guinea ere egongo da erakus-

ketan. Han lau telebista egongo dira, eta hainbat pertsonaia ezaguni drogen gainean egindako elkarrizketak ikusi ahal izango dira; besteak beste, Jesus Quintero, Ramon Saizarbitoria,

Andres Aberasturi, Espido Freire, Fermin Muguruza, Felix Linares, Manuel Vázquez Montalban eta Aurora Beltrani egindakoak.

## ASTELEHENETIK URTARRILAREN 26RA BITARTEAN, KULTURA ETXEAN

*Droga: gizarte gaia* erakusketa astelehen arratsaldean zabalduko dute, eta hilaren 26ra bitartean egongo da zabalik, biak barne, kultura etxean. Ordutegia, berriz, ondorengo izango da: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

*Astelehen arratsaldean zabalduko dute, eta hilaren 26ra arte egongo da ikusgai*

*Drogaren gainean Kim Manresak EAEko hiriburuetan ateratako argazkiak egongo dira ikusgai*

*Pertsonaia ezagunei drogen gainean egindako elkarrizketak ere egongo dira bideoan*

# 'Kanto'-ri ongiatorri beroa egin zioten

MONIKA BELASTEGI

Joan den domekan, herritar ugari egin zioten ongiatorria Luis Mari Azkargortari. Ekitaldian opariak ere jaso zituen hainbat talderen izenean. Bestalde, bihar, zapatua, haren omenezko afaria egongo da Artatsen, 21:30ean. Afarirako txartelak ohiko lekuetan daude salgai.

*Kanto* hilaren 7an irten zen Martuteneko espetxetik, Ruth Alonso epaileak baldintzapeko askatasuna eman ondoren. 14 urte eman ditu kartzelan, 1988ko apirilaren espetxeratu zutenetik.

Ordutik hona Estatu osoko zortzi espetxetan izan da, eta azken lau urteak Martutenen eman ditu.

## ANE MIREN ALBERDI, ATXILOTUTA

Egun berean, Ane Miren Alberdiren atxiloketa salatzeke manifestazioa egin zuten hainbat herritarrek. Alberdi aurreko egubakoitzean atxilotu zuen Frantziako poliziak, beste bi lagunekin batera, Landetako Akize herrian. Lau egun inkomunikatuta egon ondoren, martitzenean deklaratu zuen Levert epailearen aurrean: gaizkile elkarteko kide izatea egotzi dio, besteak beste.



AITOR URIZAR

Jende ugari hurreratu zen, domekan, Luis Mari Azkargorta *Kanto*-ren ongiatorria.



Domekan, meza nagusia izango da, 11:00etan, eta horren ondoren, luntxa emango dute.

AUZOAK/ Domekan, 25. Anton Deuna Krosa jokatu da

## San Anton auzoko jaiak izango dira asteburuan

MONIKA BELASTEGI

Gaur, urtarrilak 17, San Anton eguna da. Hori horrela izanik, izen bereko auzoan jaiak ospatuko dituzte asteburuan barrena. Gaur goizean, ermitarra igoera, meza eta luntxa izan dituzte, besteak beste, eta 19:00etan, txikiteoa egin dute auzotarrek.

Bihar, zapatua, 16:00etan, XVI. Mus Txapelketa jokatu da Zubiberri sagardotegian. Izenematea 12 euro da, bikoteko, eta ordube-

te lehenago eman beharko da, sagardotegian bertan. Txapelketa sari banaketa 19:00etan egingo dute eta 21:00etan, berriz, herri afaria izango da Zubiberrin.

**KROSAK 25 URTE BETEKO DITU AURTEN** Domekan, meza nagusia izango da, 11:00etan, San Anton ermitan, eta han Umore-Ona taldeak abestuko du.

Horren ondoren, 12:00etan, Anton Deuna Krosa jokatu da auzoan barrena. Aurten, gainera, 25 urte egingo ditu lasterketa horrek.

Krosaren ondoren, salda, lukainka eta ardoa egongo dira hurreratzeko diren guztiendako, eta 12:30ean, berriz, herri kirolak izango dira. Horrez gain, Ikastolako dantza taldeak dantzaldia egingo du, eta amaitutakoan, 13:00ak aldera, umeendako hainbat txapelketa izango dira: kaskara jokoa eta txerri harrapaketa, besteak beste.

Eta, azkenik, jaiak amaitzeko, txapelketetako sariak banatu dituzte, eta, horren ondoren, txikiteoa egingo dute San Anton auzoan barrena.

### Yoga eta brikolajea emakumeendako

Astlehenean zabalduko da epea yoga eta brikolaje ikastaroetako bigarren zatian izena emateko. Ikastaro horiek emakumezkoendako baka-rik dira, eta lau hilabete iraungo dute, otsailetik maiatzera bitartean, hain justu ere.

Izena Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman behar da, 09:00etatik 13:00etara bitartean, eta horretarako azken eguna datorren egubakoitza, hilaren 24a, izango da. Matrikulari dagokionez, 24 euroko prezioa du.

## Udaltzaina hartzeko deialdian 17 lagunek eman dute izena

MONIKA BELASTEGI

Udaltzain bat kontratatzeko Udalak egindako deialdian hamazazpi lagunek eman dute izena. Hain zuzen ere, iaz erretiratu zen udaltzain batek utzitako hutsunea betetzeko egin dute deialdia.

Secundino Rodríguezek iaz utzitako lekua beteko du Udalak kontratatu nahi duen udaltzainak. Deialdira hamazazpi lagunek aurkeztu dute euren burua, eta laster hasiko dira hautaketa probak.

Lehenengo euskara proba izango da, eta hori otsailaren 26an egin beharko dute izena

eman dutenek. Lanpostua eskuratzeko beharrezkoak diren gainerako azterketak –teorikoak eta fisikoak, besteak beste– noiz izango diren zehaztu barik dago oraindik, Bergarako Udaleko iturrietan esanetan.

### BESTE HUTSUNE BAT

Horrez guztiaz gainera, litekeena da proba horietatik bigarren udaltzain bat ere kontratatzea. Izan ere, gaur egun lanean arden udaltzainetako batek berrituzko eszedentzia eskatu du eta horrek beste hutsune bat utziko du Udaltzaingoan. Denek dela, Bergarako Udalak oraindik ez du kontratazio berri hori onartu.

## LABUR

### Udaleko Enplegu Sailak Informatika ikastaroan izena emateko epea zabaldu du

Bi arlo landuko dituzte ikastaroan: Windows eta Microsoft Word hasiera. Ikastaroan parte hartzeko derrigorrezkoa da teklatua erabiltzen jakitea, eta horretarako, ikastaroa hasi aurretik 10 orduko mekanografia saioa emango dute.

Ikastaroak urtarrilaren 20an hasi eta azaroaren 21era arte iraungo du, 09:00etatik 11:00etara bitartean, eta talde bakoitzeko hamaikabi lagun egongo dira.

Izena Ongizate Zerbitzuko Enplegu Sailean eman behar da 09:00etatik 13:00etara bitartean. Dagoeneko epea zabalik dago, eta otsailaren 16an itxiko dute. Bestalde, izena ematerakoan zehaztuko duten kontu-korrontean 30 euro sartu beharko dira ikastaroan parte hartzeko.

### Errefuxiatu sahararrei bidaltzeko janari bilketa kanpaina hilaren 25ean amaituko da

Bilketarako honako janaria lagatzea komeni da: lekaleak, zerealeak, pastak, azukrea, olio eta atuna oliotan. Bestalde, janaria lagatzeko guneak hauek dira: Udaltzaingoa, herriko elkarte gastronomikoak eta komertzioak. Hilaren 25ean amaituko da kanpaina, eta horren ondoren, Tyndouf-en (Aljeria) dauden errefuxiatu sahararren kanpamentuetara bidaliko dute.

Janaria kanpamentuetara eramateko kamioiak erostea da kanpainak duen beste helburu bat. Horretarako, bi kontu-korronte zabaldu dituzte: bata, Euskadiko Kutxan (3035 0060 45 060004746) eta bestea, Kutxan (2101 0200 44 0011305190).

### Etxeko ardurak trukatzeko lantegian izena emateko epea zabalik da Gizarte Ongizatean


Helburua da etxeko ardurak gizonen eta emakumeen artean elkartrukatzeko. Emakumezkoek gai hauek landuko dituzte: iturri gintza, elektrizitatea, brikolajea eta etxeko ekologia. Gizonezkoek, berriz: joskintza, lisatzea, sukaldaritza, garbiketa eta etxeko ekologia.

Lantegiak hilaren 21ean hasiko dira, eta bost aste iraungo dute. Eskolak martitzenetan eta eguenean izango dira, 19:00etan. Informazio zabalgoa eta izenematea, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo 943 77 91 25 telefonoan.

### Outlook Express ikastaroa emango dute KZGunean urtarrilaren 28an

Outlook Express posta elektronikoko programa irakasteko ikastaroa eskainiko du KZGuneak urtarrilaren 28an. Bi orduko ikastaroa izango da, 11:00etatik 13:00etara, eta, besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: mezuak zelan idatzi, agiritegiak zelan erabiltsi eta helbide-libretan kontaktuak zelan gehitu.

Ikastaroa doan da eta izena KZGunean bertan eman behar da edo 943 76 73 24 telefonoan. Plazak mugatuak dira.



**GAZTETXEA/** 'Isiltasuna apurtzen' izenburupean, 35 talderen historia eta adierazpenak jaso dituzte aldizkarian; disko bikoitzean, berriz, kantu bana

# Herriko taldeak batu ditu gaztetxeak 'Astindu' fantzinean, disko eta guzti

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean, *Astindu* fantzinearen 8. zenbakia aurkeztu zuten gaztetxeko kideek. Zenbaki berezia da: herriko musika taldeen monografikoa eta disko bikoitza ditu, taldeen kantuekin. Herritarrei aurkezteko, kontzertuak izango dira gaur eta bihar.

Zortzigarren zenbakiak *Isiltasuna apurtzen* izena du, eta azken bi hamarkadetan herrian izan diren musika talde ia gehienak batzen ditu. Gainera, aldizkariarekin batera CD bat ere banatuko dute. Lan bikoitza egin dute, orduan, gaztetxeko kideek aldizkariaren azken zenbaki horretan: batetik, bi hamarkadotan herrian izan diren eta gaur egun ere dauden taldeen historia jaso dute, 35 talderenak, hain justu. Historiarekin batera, kideei egindako elkarrizketak eta hainbat berezitasun ere jasotzen ditu aldizkariak; eta, bestetik, idatzizko euskarriaren osagarri gisa CD bikoitza atera dute. 35 talde horietako bakoitzaren kantu bana jaso dute. Azken baten, "musika taldeek egiten dutena musika izanik, aldizkaria bera bakarrik hanka motz geratuko litzatekeelako", gaztetxeko kideen hitzetan.

Prensaurrekoan esan zutenenez, lan handia izan da guztia antolatzea, eta iaz, ekain aldera, asmoa zena, irailean mamitzen hasi zen: "Batzarrera deitu genituen herriko taldeak, eta bi ondorio atera genituen: batetik, guk uste baino musika talde gehiago daudela herrian; eta, bestetik, aldizkaria eta CDa egiteko ideia oso egokia iruditu zitzaie".

Baina zelan osatu diskoa, kontuan izanda oso talde gutxiak zutela aurrez zerbaite grabatuta?: "Hainbat aukera aztertu genituen: bata izan zen taldeek estudioetara jo eta han grabatzea. Baina hainbat taldek ez zuten mediorik horretarako, eta, azkenean, gaztetxea grabazio estudio bihurtzea erabaki genuen".

Gaztetxea grabazio estudio bihurtuta, 19 taldek grabatu zuten han euren abestia. Urriaren izan zen hori, eta hiru aste eman zituzten horretarako. Aurrez grabazioaren bat eginda zuten taldeen kasuan, "kantu bana utzi digute eta masterizazio orduan hobekuntza batzuk egin ditugu grabatu berriekin orekatzeko". Emaizta 35 talderen kantu bana jasotzen dituen CD bikoitza da.

## GAZTETXEAN ETA HERRIKO TABERNETAN ESKURATU DAITEKE, SEI EUROTAN

Aldizkaria eta diskoa saltzeko orduan bide komertzialetatik ihes egin nahi izan dute bultzatzaileek; batetik, asteburuaren erosi ahal izango da, gaztetxean; bestetik,



MONIKA BELASTEGI

Asteburuko aurkezpen kontzertuetan 22 taldek hartuko dute parte: egubakoitzean 22:00etan hasiko da kontzertua, eta zapatuan, 20:00etan.

*Aldizkaria eta diskoa aurkezteko kontzertuak izango dira egubakoitzean eta zapatuan*

herriko tabernetan ere jarriko dute salgai. Sei euro kostatuko da.

Herrian saltzeaz gain, ibarrera zabaltzeko asmoa ere badutela gehitu zuten prentsaurrekoan: "Debagoieneko gaztetxe eta tabernetan jarriko dugu salgai,

*Gaztetxean eta tabernetan salduko dituzte fantzinea eta CD bikoitza, 6 euroren truke*

baita Bilboko Likiniano eta Gas-teizeko Zapatenean ere.

**'ASTINDU' ALDIZKARIA: KOMUNIKAZIO KANAL PROPIOA**  
Gaztetxeko kideek 2001ean, urriaren, kaleratu zuten *Astindu*-

*'Astindu'-ren zenbaki berezian musika taldeen egoera kaskarra salatu dute*

ren lehen zenbakia. Prensaurrekoan adierazi zutenenez, "ordurako urte eta erdi zeramatzan gaztetxeak martxan; dinamika eratuta zegoen, filosofia propioa sortuta zegoen, eta ekitaldi ugari antolatzen genituen". Hala ere,

behar garbi bat genuela ikusi genuen: komunikazio kanal propioa". Hala, Gazte Asanbladako hainbat kide bide hori jorratzeko lanean hasi ziren, eta talde-lan horretatik *Astindu* sortu zen.

*Astindu*-ren helburu nagusia kontra-informazioa lantzea da, eta gai asko jorratzen ditu. Dena dela, hori ez da helburu bakarra; benetako komunikazio kanala izatea ere nahi dute: "Gure iritziz, komunikazioa ez da herritarrek aldizkaria irakurtzea bakarrik; aldizkarian idazteko aukera izatea ere bai. Herritarrek inplikatzeko nahi dugu, eta gazte sentitzen den edonork idazteko tokia due-la azpimarratu nahi dugu".

## Entseatzeko lokal barik

*Astindu* aldizkariaren 8. zenbakiak -zenbaki berezia- entseatzeko lokalen eskasia izugarria dagoela eman nahi du aditzera, gaztetxeko kideen esanetan. Egun, 20 talde baino gehiago daude herrian eta oso gutxi dute entseatzeko lokala, eta dauden lokalak ere nahiko kaskarrak direla azaldu zuten prentsaurrekoan.

Gehitu zutenenez, egoera ez da berria: "Bi hamarkadako taldeak jasotzen ditugu aldizkari berezian, eta bitarte horretan egondako arazoa da. Badirudi taldeek isilik, ezkutuan moduan egon behar izan dutela, baina aldizkariaren izenburuari men eginez -*Isiltasuna apurtzen*-, guztiok elkartu eta isiltasuna apurtu nahi izan dugu. Herritarrek jakin dezatela multzo handia direla eta bakoitzaren atzean lan eta ilusio handia dagoela".

## Aurkezpen kontzertuak

**EGUBAKOITZA, hilak 17**

Cool Panic  
Supercools  
Fly Shit  
Frenopatics  
Fragel Rock  
Hiru Puntuak  
Zartateko  
Destruccion  
N.C.M.  
Goiko Rock

**ZAPATUA, hilak 18**

Aitzol Mujika  
Uko  
Black Sheeps  
Dixie 900  
Dog Bite  
Elebators  
X-at  
Ednis  
Ostiada Oi!  
Factoria 77  
Muskitxu

Sarrera: 3 euro. Sarrera+CDa+'Astindu' fantzinea: 8 euro

## LOTERIAKO SARI NAGUSIA ZENBAKI BATEGATIK EZ BERGARARA

**J**oan den zapatuko Galiziaren aldeko loteriako sari nagusia gutxiatik ez zen Bergarara etorri. Peñalbako administrazioan 82.507 zenbakia daukate izendatuta, eta zapatuan, 72.507 zenbakiari egokitu zitzaion lehen saria. Irunen eta Bilbon saldu zuten zenbakia, besteak beste. Edozelan ere, 82.507 zenbakiaren jabeek 492 euro jasoko dituzte dezimo bakoitzeko. Peñalbako administrazioan ez ezik, Antzuolako taberna baten eta Boluko denda baten ere saldu zuten saritutako zenbakia. Peñalbako administrazioaren arduradun Pilar Muxikaren esanetan, 70.000 euro banatu zituzten joan den zapatuko loterian, sari txikiagoak kontuan izanda.



## BKE-KO GABONETAKO SASKIA

**B**ergara Kirol Elkarteak Gabonetan zozketatutako saskia Jesus Mari Suinagak eraman zuen etxera, hura zen-eta 20.580 zenbakidun txartelaren jabea. Argazkian ikusten denez, sari ederra eskuratu zuen Suinagak Bergara KEko presidente Iñaki San Joseren eskutik. Bestalde, bigarren sariaren irabazlea agertzeke dago oraindik: 1.902 zenbakia daukanari musika-ekipo dotorea emango diote. Adi, beraz, nonbaiten ahaztutako txartelek...



## IGERI ELKARTEKOEN SASKIA

**M**arina Estévezek jaso du Bergara Igeri Elkarteak abenduaren 22ko loteria nazionalarekin zozketatutako saskia. 8.103 izan genuen saritutako zenbakia, eta Amaia Azpeitia Igeri Elkarteo gaztetxoak Marinari saldu zion txartela. Igeri Elkarteko saskia Zangitu dendan izan zen ikusgai Gabonetan, eta hara hurreratu zen Marina saria jasotzera. Argazkian, Marina eta Amaia saskiaren ondoan... Ez du sari makala jaso Marinak; ez, horixe! On egin!

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49


lbargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA




**Ur-bide**  
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617



INGAINARITIRAKA



**Roberto Merino**

UNEDeko LIBURU DENDAKOA

Roberto Merinok 26 urte dauzka eta UNEDeko liburu dendan dihardu lanean azken bost urteotan. Artearen Historia ikasten hasi zen, baina laga egin zituen unibertsitate ikasketak. Asier Altunaren *Topeka* film laburrean estra lanak egin ditu.

**Laneko gauzarik onena eta txarrena?**

Onena, jendearekin daukadan tratua, baita egutegia ere.

Txarrena, zenbaitetan lanez gainezka egotea.

**Txikitan, zer izan nahi zenuen?**

Ez dakit... Futbolari edo suhiltzaile, beharbada.

**Lanbidez aldatzekotan, zer izan nahi zenuke?**

Aberats. (Barreak). Ez, gustura dihardut oraingo lanean.

**Besteengan gehien estimatzen duzuna?**

Zintzotasuna.

**Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**

Osasunari.

**Egindako azken oparia? Eta jasotako azkena?**

Egindako azkena, aitari; liburu batzuk opari egin nizkion.

Eta jasotako azkena, mendiko liburu bat.

**Internet erabiltzeko ohiturarik badaukazu?**

Oso gutxitan. KZGunerara joaten naiz noizean behin.

**Film bat/Liburu bat/Musika talde bat?**

*Lugares comunes/Las vírgenes suicidas*, Jeffrey

Eugenides-ena/Massive Attack.

**Kirolak egiten duzu?**

Bai: mendia, korrika, eskalada, aerobika...

**Parrandazalea zara? Parrandarako toki bat?**

Orain, ez hainbeste; lehen, bai. Lekeitio oso gustuko dut.

**Janaririk eta edaririk gustukoena?**

Jateko, pasta eta edateko, ura eta ardoa.

**Urtaro bat?**

Uda.

**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**

Atzeko orrialdetik hasten naiz beti.

**Zer egingo du Realak aurten?**

Ez nau batere kezkatzen horrek.

**Nora egingo zenuke bidaia bat?**

Mongoliara. Baita Afrikara eta Tibetera ere.

**Aste bukaerarako plan on bat?**

Mendi buelta bat, Aizkorriera-edo, eta lagun arteko afari bat.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

**LIERNI GABILONDO**

30 URTE / TEKNIKARI KIMIKOA / ZARAGOZAN

**“Duela zazpi urte etorri nintzen Zaragozara ikastera, eta oso gustura bizi naiz hemen”**

EDU MENDIBIL

**I**kasketetako lehenbiziko hiru urteak Logroñon eman ondoren, Zaragozan kimika ez organikoaren espezialitate egin zuen Lierni, eta orduetik hona han bizi da, orain dela zazpi urtetik hona, hain zuzen ere. Tesina Zaragozan egin zuen, eta, ikasten ziharduela, Polibol España enpresan egin zituen praktikak. Gaur egun, hantxe jarraitzen du lanean. Elikadura, farmazia edo kosmetikako produktuen ontziak egiten dituzte. Lierni gustura dago Zaragozan. Mutil-lagunarekin bizi da (Ramon), La Magdalena auzoan, El Pilartik oso gertu, bost minutura. Mutil-laguna ere kimikaria da, eta ikasketak egin zituenetik ezagutzen du. Lierniren esanetan, “lagun gehienak ikasketetan barrena ezagututakoak dira, eta alde horretatik zortea izan dut. Euskaldun bakarra neu naiz. Lehen, baziren beste batzuk koadrilan, baina denek alde egin dute hemendik. Aste bukaeretan elkartzeko gara, gure etxean edo lagun baten etxean; afaltzeko, gehienetan. Nahiko bizimodu lasaia egiten dugu. Gauean tabernaz taberna ibiltzea baino nahiago izaten dugu etxean geratzea. Aste barruan lan egin ondoren, atsedean hartzeko gogoz egoten gara. Bestalde, noizean behin mendi irteerak egiten ditugu, Huescara, gehienetan. Bartzelonara ere joaten gara batzuetan. Bartzelonan lagun dezentek dauzkagu. Hil bukaeran bost egunerako hara joateko asmoa daukat”.

*“Aragoarren primeran hartu ninduten hasieratik. Jende jatorra eta umila da”*

Etiket enpresara, autoz, ordu laurdeneko bidaia dauka. Han igarotzen du egun osoa, eta 18:00ak aldera etxeratzen da. Martitzenetan eta egunenetan frantses eskolak hartzen ditu eta egubakoitzetan auzoko Radio Topo irrati librean musika saioa egiten du, beste hiru lagunekin batera. *Jazz, trombon y cucharilla* izenburuko irratsaioa jazz musikaren gainekoa da; egubakoitzero, 23:00etatik 00:00etara: “Musika izugarri gustuko dut; ederto pasatzen dugu irratsaioa egiten. Musika da nire zaletasun nagusia”.



ko bat: aspaldi, biolina jotzen hasi nintzen, baina laga egin nuen. Etorkizunean pianoa jotzen ikasi nahi nuke, ikusi behar...”

Zaragoza gustuko du Lierni: “Ez da oso hiri handia, eta aisialdirako eskaintza zabala dauka: kontzertuak, zinemak... Itsasoa bakarrik falta zaio”. Egunotan, tenperatura hotzak izan dituzte: “Bai, neguan hotz handia eta udan, berriz, sekulako beroa jasaten dugu. Ez dago erdibiderik. Egia esateko, aurten, oraindik ez du hotz handiegirik egin. Dena dela, neguan ondo jantzita irten beharra dago kalera, Moncayo-ko ziertoak gogor jotzen du-eta. Baina hemengo hotza, hangoarekin alderatuta, ezberdina da, eta batzuetan Bergaran hotz handiago pasatu izan dut. Zaragozan, berriz, euria gutxitan egiten du, eta ia egunero dago eguzkiaren gozatzeko aukera”. Aragoarren ondo konpontzen dela diosku: “Primeran hartu naute, eta ez dut inolako arazorik izan euskalduna izateagatik; kontrakoa esango nuke. Aragoarren jatorrak eta umilak dira, jende ona. Oso pozik nago Zaragozan, eta oraingoz ez zait burutik pasatu hemendik alde egitea”.

Gabonak Bergaran pasatu ondoren, urtarrilaren 2an itzuli zen lanera Lierni. Hilean behin-edo etortzen da Bergarara, familia eta lagunak bisitatzen. Autoz hiru orduko bidaia da Zaragoza eta Bergara artekoa. Lagunen eta familiakoen bisitak ere izaten ditu noizean behin, baina Lierni dioenez, “lagunak-eta ez dituzte askorik erakartzen Zaragozak, eta nahi baino gutxiago etortzen dira bisitan”.

**IRURAK MARGOAK**  
 DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
 Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
 Faxa: 943 76 09 32

**JAUJA KIROLAK**  
 Irizar 2. BERGARA  
 943 76 14 95

**ARDATZA**  
 Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

## ELKARRIZKETA

GORKA MARTÍN/EIBAR TALDEKO PILOTARI BERGARARRA

# "Binaka ez dago horrenbesteko tentsiorik, eta banaka baino dibertigarriagoa da"

EDU MENDIBIL

**G**orka Martín pilotari bergararrak (23 urte) Eibar taldean dihardu, eta Jon Bengoetxearekin batera Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finalera iritsi zen, lehen senior mailan. Martínek eta Bengoetxeak 15-22 galdu zuten San Esteban taldeko bikote baten aurka, Oñatin, Gabonen atarian.

**Txapelketa biribila egin ondoren, txapela janzterik ez zenuten izan...**

Bai, finalaren aurreko partidu guztiak irabazi genituen, tartean, Bergararen aurkako finalaurrekoa. Ligaxkan Izagirre-Altuna San Estebango bikoteari 22-17 irabazi genion, Eibarren, baina finala edozeinek irabaz zezakeen. Partidua irekia zen, eta eurek oso ondo jokatu zuten. Altuna ikaragarri ibili zen partiduan osoan, ez zuen hutsik egin. Pena izan zen finala ez irabaztea.

**Eta urte berrirako zeintzuk dira zure helburuak?**

Hurrengo astean, Debarroko Txapelketa jokatzen hasiko gara. Jon Bengoetxeak orkatilan lesioa izan berri du eta pare bat hilabetean ezin izango du jokatu. Orduan, ez dakit zein izango dudan bikotekide. Aurrelaria

naiz, baina, beharbada, atzean jokatuko dut lehen partiduetan. Helburua ahalik eta urrunen heletzea izango da. Ikusi behar. Bestalde, Eibarrek ez dauka Herri Arteko Txapelketa jokatzekeo talderik; edozelan ere, bergararra izanda, ezin izango nuke jokatu.

**Zergatik alde egin zenuen Bergararik?**

Pilotan egiteko handinahia eta gogoa neuzkan, baina Bergaran ez zidaten ematen nik nahi nuen. Hobetzeko aukerarik ez nuen aurkitzen, eta Aloña Mendira joatea erabaki nuen. Oñatin jokalaria beterano asko zeuden, 30 urtetik gorakoak, eta erretiratzeko hasi zirenean, ia bakarrik geratu nintzen. Handik Eibarre joateko aukera izan nuen, eta oso gustura dihardut.

**Kantxan zer-nolako jokoa egitea gustuko duzu?**

Pilotari tradizionala naizela

*"Hobetzeko aukerarik ez nuelako egin nuen alde, eta Eibarren gustura nabil"*

esango nuke. Ez dut tantoa azkar bukatzen, eta pilota azkar ibiltzea eta joko indartsua egitea gustatzen zait. Beharbada, sakea da nire armarik onena.

**Banaka ala binaka gusturago?**


Binaka nahiago. Banaka asko jokatu izan dut, eta emaitza onak lortu ere bai. Gipuzkoako txapelketa izan nintzen 21 urtetik azpikoetan eta aurretik, Euskadiko txapelkunorde. Nahiko ondo defenditzen naiz banaka, baina oso diziplina gogorra da. Jokoa oso bortitza da, kantxan aurkaria dominatu behar da eta. Binaka beste modu baten jokatzen da. Ez dago horrenbesteko tentsiorik, eta dibertigarriagoa dela esango nuke. Gainera, bikotekidearekin batera asko ikasten da kantxan.

**Astelenan entrenatzen zarete. Frontoi onenatarikoa.**

Oso gustuko dut. Frontoia polita da, ikustea besterik ez dago. Eta frontoi fidela da, jolasteko primerakoa da. Luxua da han jokatzea.

**Profesionalen binakako txapelketan faboritorik?**

Lehia handia egongo da, betiko moduan. Edozelan ere, aurkatzekotan, Unanue-Peñagarikarekin eta Xala-Lasa iazko txapelkunekin geratzen naiz.



## FOTOKIROLA

**Eski irteerak, Pol-Polen eskutik**

Pol-Pol Mendizale Elkarteak otsailaren 7tik 9ra Formigalera eskiatzera joateko irteera antolatu du, Aloña Mendi taldearekin batera. Era berean, martxoaren 14tik 16ra Luz Ardidenara joango dira eta martxoaren 28tik 30era Baqueirara. Argibideak, Pol-Poleko bulegoan edo 943 76 48 51 zenbakian.

## Euskal Ligako BKEko gazte taldeak Sporting Herrera hartuko du bihar

E.M.

Euskal Ligan ari den Bergara KEko gazte taldeak Sporting Herrera talde donostiarra hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Bergararrek 0-1 irabazi zuten aurreko zapatuan, Zaramagan (Gasteiz), eta hamaikagarren daude sailkapenean.

Lehen itzulian 0-0 egin zuten, Donostian. Sporting Herrera taldea hirugarren dago sailkapenean eta Bergara, hamaikagarren. Mahoneroek 0-1 irabazi zuten azken jardunaldian, Zaramagan, Igor Letek egindako golari esker.

Beste hiru futbol partidu jokatuko dira Ipintzan aste bukaeran: zapatuan, Bergara-Hondarribia (infantilak), 11:30ean; eta domekan, Bergara-Behobia (2. mailako gazteak), 11:30ean eta Bergara-Urki (lehen mailako kadeteak), 16:00etan.



Gazte taldeak irabazi egin nahi du, bihar, Sporting Herreraren aurka.

**PREFERENTE, LIDERRAREN AURKA**

Bergara KEko preferente taldeak Pasajes liderrari bisita egingo dio bihar, zapatua, Molinao futbol zelaian, 16:30ean. Domekan

Aretxabaletan irabazi ondoren (1-2), Bergara hirugarren dago sailkapenean (35 puntu). Hala, Pasajes liderrarekiko (42 puntu) aldea murrizteko aukera dute.

## Muguruza-Gutiérrez bikotea Euskal Ligan hasiko da bihar

E.M.

**Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezek osatutako bikoteak Euskal Ligako lehenbiziko partidua jokatuko du bihar, zapatua, Antzuolako pilotalekuan. Aurrean, Zornotzako bikotea izango dute, 18:30ean.**

Aurreko astea ezker Bergarako Udal Pilotalekuan hainbat hobekuntza lan egiten ari direnez (datorren asterako lanak amaituta izatea espero da), biharko partidua Antzuolako pilotalekuan jokatuko dute Muguruzak eta Gutiérrezek. Probintzia bakoitzeko lau bikote onenak izango dira lehian Euskal Ligan, senior mailan. Bikote bergararra Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan finalerdietara iritsi zen, baina galdu egin zuen Eibarko ordezkarien aurka, abenduan.

Reyes Azkoitia Pilota Saileko entrenatzailearen esanetan, "Igor Gutiérrezek eskuan min izan zuen urte bukaeran, eta ez dakit zer-nolako maila emango duten bihar Igorrek berak eta Anderrek. Helburua azaroan erakutsi zuten maila berreskuratzea izango da, baina, beharbada, hasierako partiduetan ez dute euren onena ematerik izango. Ikusi behar. Zornotzarren aurka partidu zaila izango dute, dudarik ez, haien aurrelari oso ondo dabil-eta".

### INFANTILAK ERE, ANTZUOLAN

Bestalde, infantil mailako bi bikoteek ere Antzuolan jokatuko dute, gaur, egubakoitza. Gaurko jaialdia 19:30ean hasiko da. Infantil mailako bigarren taldeak Zubietakoaren aurka neurtuko ditu indarrak eta jarraian lehen mailako bikotea eta Urrietakoa izango dira aurrez aurre.



JOSETXO MUNIATEGI

Gazte mutilen taldeak azken faserako sailkatzea lortu du dagoeneko.

## ESKUBALOIA

# Bergara-Arrate gazte mailako partidua, domekan, Labegaraietan

EDU MENDIBIL

**Bergara KEko gazte mutilen eskubaloitza taldeak Arrateren aurka jokatuko du domekan, Labegaraietako kiroldegian, 12:00etan. Josetxo Muniategi zuzentzen duen taldea denboraldi bikaina egiten ari da.**

Begararrak hirugarren daude sailkapenean, Egia eta Arrate taldeen atzetik, hain zuzen ere. Josetxo Muniategiren mutilek hiru

partidu besterik ez dute galdu orain arte, bi etxetik kanpo (Eibarraren Arrateren aurka eta Arrasaten) eta etxean Egia liderraren aurka. Gainerako bederatzi partiduetan irabazle izan ditugu mahoneroak. Azken jardunaldian, esaterako, Bergara erraz nagusitu zitzaion Urolari: 31-21.

### AZKEN FASERAKO TXARTELA

Ligako lehen fasea amaitzeko bi jardunaldi falta dira, eta Bergarak azken faserako txartela eskue-

tan du dagoeneko. Azken fasean sei talde izango dira nor baino nor gehiago, eta txapelkunak bakarrik jokatuko du ondorengo igorera fasea. Edozelan ere, Bergara ezin izango da mailaz igo, horretarako kadete eta gazte mailako taldeak izatea beharrezkoa delako; baina Bergarak aurten ez du kadete mailako talderik atera. Josetxo Muniategiren esanetan, "taldea ondo dabil, eta azken fasean gure helburua aurrenekoekin borrokatzea izango da".



ARTXIBOA

Ander Muguruza eta Igor Gutiérrez.

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### SAILKAPENA

A MULTZOA		B MULTZOA	
P	J	P	J
1. A Ze Flaxa	27 10	1. Bedarreta	27 9
2. Bayer	24 8	2. Errotagain	22 9
3. Artusamak	22 9	3. Fac	22 10
4. Agirrebeña	18 9	4. Mongatxurak	18 9
5. Dedo Pafarru	18 9	5. Pagomendi	18 10
6. Txipiron	18 8	6. Argandolas	16 10
7. TNT	15 9	7. Canalejas	15 10
8. Getokuak	13 10	8. Las putas de Satan	12 9
9. Torrekoa	9 10	9. Komando Piperrak	11 10
10. Bildurbarek	7 9	10. Aterpe	11 9
11. Pirulotarrak	6 8	11. Bar Ganbara	7 10
12. Etengabe	4 10	12. Irubide	6 9
13. Cipote Nucleico	3 8	13. Belengua	4 9
14. De Ore	0 9	14. Quinta del Buitre	0 8

### PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Bedarreta-Quinta del Buitre. **Artusamak**  
17:00: Artusamak-Bayer. **Irubide**  
18:00: Irubide-Pagomendi. **Getokuak**  
19:00: Getokuak-A Ze Flaxa. **Pagomendi**

#### DOMEKAN, BARRUAN


09:30: Txipiron-Dedo Pafarru. **Bildurbarek**  
10:30: Bildurbarek-Etengabe. **D. Pafarru**

#### 16:00: TNT-Torrekoa. **Belengua**

17:00: Belengua-Ganbara. **Mongatxurak**  
18:00: Mongatxurak-Fac. **Agirrebeña**  
19:00: Agirrebeña-Pirulotarrak. **Cipote Nucl.**  
20:00: Cipote Nucleico-De Ore. **Pirulotarrak**

#### DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Argandolas-Aterpe. **Errotagain**  
12:30: Errotagain-Las putas de Satan. **Argand.**



### Bedarreta eta A Ze Flaxa, lidertzan

Labegaraietako Futbito Txapelketako lehen fasea amaitzear dago, bizpahiru jardunaldi besterik ez da falta-eta. Oraingoz, Bedarreta eta A Ze Flaxa ditugu multzo bakoitzeko talderik onenak. Dena dela, Bayerrek jokatutako partidua guztiak irabazi ditu A multzoan. Multzo bakoitzeko bi talderik onenak ondoren osatuko diren lau multzoetako serieburuak izango dira. Multzo bakoitzean zazpi talde izango dira lehian, eta lau onenak sailkatuko dira *play-off*-etarako, ligako txapelketa erabakitzeko.

## SASKIBALOIA

### Kadete taldeek etxean jokatuko dute zapatuan

Bergara KEko kadete mailako bi taldeek etxean jokatuko dute bihar, zapatua. Lehen mailakoak Cafes Aitona hartuko du eta bigarren mailako kadeteek, berriz, Azpeitiaren aurka jokatuko dute. Bi partidua 12:00etan hasiko dira.

## TXIRRINDULARITZA

### Lokatzak lizentziak berritzeko epea zabaldu du

Lokatzak aurtengo denboraldirako lizentziak berritzeko epea zabaldu du. Interesatuak San Martin plazan duten lokalera jo dezakete, eguenetan, 20:00etatik aurrera. Lehiaketan nahiz eskolan hasi nahi duten Antzuolako, Elgetako edo Bergarako gaztetxoei dei berezia egiten diete.

Hiru emanaldi izango dira: lehena bihar, zapatua, izango da eta horren ondoren beste bi izango dira, otsailaren 1ean eta 15ean, hain justu ere


# Organo Erromantikoaren Nazioarteko IV. Zikloaren barruan, emanaldiak San Pedron

MONIKA BELASTEGI

Bergarako, Azkoitiko eta Loiolako udalek antolatu dute Organo Erromantikoaren Nazioarteko IV. Zikloa. Bergaran San Pedroko organoan egingo dituzte emanaldiak. Herri bakoitzak duen organo erromantikoaren doinu aparta aprobetxatu nahi izan dute.

Bergarako, Azkoitiko eta Loiolako udalek lankidetzan antolatutako zikloa da. Denera, bederatzia emanaldi izango dira, eta zikloko lehena joan den zapatuan izan zen, Azkoitiko Santa Marina parrokiaren.

Bergarari dagokionez, bederatzia emanaldi horietako hiru San Pedro elizan egingo dira; hirurak, 20:00etan: lehenengoa bihar, zapatua, izango da, eta Wieland Meinhold organo jotzaile alemaniarrek egingo du emanaldia; bigarrena otsailaren 1ean izango da, eta Jean Paul Imbert frantziarrak egingo du; eta azkeneko emanaldia otsailaren 15ean izango da. Aitor Olea Juaristi organo jotzaile euskaldunak eta



Stoltz-Frères San Pedro elizako organo erromantikoan izango dir emanaldiak.

Maria Jesus Ugalde soprano bergararrak egingo dute emanaldia.

#### LEHEN EMANALDIA: WIELAND MEINHOLD ORGANO JOTZAILE ALEMANIARRA

Halle-n jaio zen, 1961ean. Weimarko Goi Mailako Eskolan ikasi

zuen 1977 eta 1983. urte bitartean. Gero, Budapesteko Musika Akademian ikasi zuen, Gergely irakaslearekin. Beste ikasketa batzuk egin zituen Berlingo Arte Akademian eta Rogg, Köhler, Kooiman eta Litaize irakasleekin.

## Emanaldiko egitaraua

### J.S. BACH (1685-1750)

- Fantasia eta fuga la minorrean (BWV 561)
- Korala: Erbarm dich mein (BWV 721)
- Korala: Wir glauben all an einen Gott (BWV 680)
- Fuga kadentziarekin do minorrean (BWV 575)

### W.A. MOZART (1756-1791)

- Sarrera eta fuga do maiorrean (KV 399)
- Ach Herr vom Himmel (KV 620)

### WIELAND MEINHOLD

- Sebastiani omenaldia. Hiru organo-metamorfosi Bach-en organorako Mezatik: Kyrie, Gott eta Heiliger Geist

### FRANZ LISZT (1811-1886)

- Fantasia obstinato
- Weinen, Klagen, Sorgen. Bach-en 12. Kantataren baxu etengabearen bariazioak

Europako herrialde askotan parte hartu du kontzertugile gisa, baita AEBetan, Israelen, Japonen, Australian, Hego Amerikan eta Hegoafrikan ere.

Grabazio-lan eta CD ugari kaleratu ditu Liszt musikariaren

obreakin eta autore garaikide lanekin. 1999an, Filosofiako doktoretza eskuratu zuen. Bestalde Erfurt-eko Unibertsitateko Santa Migel Elizako organo jotzaile ere bada Wieland Meinhold organo jotzaile alemaniarra.

## ELKARRIZKETA

DAVID AZURTZA/BERGARAKO ORFEOIKO ZUZENDARIA

# “Oliver musikaleko emanaldien oso balorazio positiboa egin dugu; oso polita izan da”

MONIKA BELASTEGI

Hil hasieran, Bergarako Orfeoiak *Oliver* musika egin zuen Euskalduna jauregian. Lau emanaldi egin zituen, eta guztietan lepo egon zen aretoa. David Azurtza zuzendariarekin Bilbo emanaldiez jardun dugu.

#### Zein balorazio egin duzue?

Oso positiboa. Oso polita izan da, baita gogorra ere. Zapatuan, esate baterako, bi saio egin genituen segidan, 20 minutuko atsedendiarekin tartean. Saio bakoitza bi ordu eta erdikoa izan zen, eta bigarrenerako nabaritzen genuen nekea, baina, hala ere, oso ondo irten zen.

Lan handia, kontuan hartuta, gainera, entseguak ere tartean direla.

Abenduaren 31n, goiz osoa eman genuen han, baita estreinaldi egunean ere, ia-ia bazkalteko denbora barik. Eta bitxia da, guk ez dugulako apreziatu; bai-

na produkzio etxeko arduradunak esan zigun txalogarria dela, hainbeste emanaldirekin eta 130 lagun ginela kontuan izanda tartean, 40 ume-, ez zutela inongo aurpegi txarrik ikusi. Guztien jarrera oso egokia izan zen eta umore ona nagusitu zen.

Horrek agerian uzten du parte-hartzaileek izan duzuen ilusioa.

Bai, jakina. Ikusita, gainera, zein baldintzatan entseatu dugun... Seminarioko elizan entseatu dugu, eta hotza egiteaz gain, entsegu orokorretan ez zen kantarien ahotsa ondo entzuten...

“Nacho de Felipek, esaterako, txundituta geratu zela esan zigun, kalitate mailagatik”

#### Ikusleen artean zer sumatu zenuten?


Bergarakoak ez ziren ikusleek ez zuten espero ikusi zutena. Guk uste genuen Bergarako jende asko joango zela, eta, egia esan, nahiko gutxi joan zen. Aurpegi gehienak ezezagunak ziren. Bestalde, ikusle gehienei izugarri gustatu zitzaizkien.

#### Jende adituak ere kritika ona egin dizute.

Nacho de Felipekin egon ginen, esaterako, eta txundituta zegoela esan zigun, kalitate handiko ikuskizuna ikusi zuelako. Hamabostaldi Musikaleko zuzendariak ere esan zigun asko gustatu zitzaizkion.

#### Jaso duzue beste lekuren baten egiteko eskaerarik?

Muga asko ditugu mugitzeko: talde handia gara, eta horrek areto aproposa eskatzen du, eszenatokiaren atzeko alde handia duena. Hamabostaldiko zuzendariak esan zuen polita izango zela Donostiara eramatea, baina, oraingoz, ez dago ezer lotuta.



E, TXO!

GUREGAIK/ INFORMAZIO GUNEA

GIDOIEN IDAZKETA IKASTAROA

Pausoka produkzio etxeak telebistako gidioen idazketa-ikastaroa antolatu du. Ikastaro horren helburua da gidoilari berriak prestatzea. Horretarako, gidoiaren idazketan eman beharreko urrats guztiak aztertuko eta ikasiko dituzte ikastaroan.

Martitzen eta eguenean emango dituzte eskolara Donostian, 18:00etatik 20:00etara.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 29 71 11 telefono zenbakira deitu dezakezue.

EHU-REN INFORMAZIO JARDUNALDIAK

Unibertsitatera joan nahi duten ikasleendako, saio informatiboak antolatu ditu EHUk. Bihar, zapatua, Donostian egingo dute informazio saioa, Elhuyar plazako Barriola eraikinean.

Datorren zapatuan, berriz, hilak 25, Bizkaiko campusean, enpresa ikasketetako fakultatean egingo dute ikasleak informatzeko batzarra.

EUSKO JAURLARITZAREN BEKA DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak, Garapenerako Lankidetzan trebatzeko sei beka emango ditu.

Eskatzaileek bete beharreko baldintza bakarra da unibertsitariotza izatea. Beka bakoitzeko 18.000 euro emango ditu Jaurlaritzak. Eskararak aurkezteko epea urtarrilaren 31ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiago nahi izanez gero, 945 01 80 00 telefono zenbakira deitu dezakezue, edo www.euskadi.net webgunean begiratu.

# Gazte ugari erabiltzen du Informazio Gunea

AINTZANE IRIZAR

**Ohiko moduan, urteko balantzea egin du Maider Sedano Bergarako Gazte Informazio Guneako arduradunak. Urtearen balorazio oso positiboa egin du Maiderrek eta hainbat datu eman ditu ezagutzera.**

Eguen, egubakoitz eta zapatuetan egoten da zabalik Bergarako Gazteendako Informazio Gunea. Eguenetan eta egubakoitzetan, arratsalde zabalitzen dute; zapatuetan, berriz, goizez. Gazteendako egokienak diren egun eta ordutegia eduki nahi izan du hasieratik bulego horrek.


Urteko balantzean Maider Sedanok azaltzen duenez, 540 bat

pertsonaren kontsultak jaso ditu urtean zehar. Bestalde, kontsulta horietako gaiei dagokienean, gehienak lan eskaintza, ikastaro, turismo edota ikasketen gainekoak izaten dira.

Balantzean azaltzen digun beste datu interesgarri bat nazioarteko txartelen gainekoa da: 2002. urtean 227 gaztek egin dituzte txartelak Bergaran.

Bukatzeko, esan behar da maiatzean atera zutela lehiaketara Gazteendako Informazio Gune hau kudeatzeko zerbitzua, eta orain arte lan horretan jardun duen Maider Sedano gazte urteuarrak lortu zuela postu hori.

Gogoratu, Errotalde jauregian topatuko duzuela behar duzuen informazioa.



2002. urtean 227 gaztek egin dituzte nazioarteko txartelak Informazio Gunean.

LOTSABARIK/ Joel Medrano

## “Asko hitz egiten dut, batzutan, gehiegi”

AINTZANE IRIZAR

**Elkarrizketa egitea proposatu bezain laster, prest azaldu zitzaigun Joel. Laster egingo ditu 16 urte, eta DBHko hirugarren mailan dihardu. Berarekin hitz egin genuenean, azterketetan zebilen.**

- Txikitan, zer izan nahi zenuen? Ez dakit, ez dut gogoratzen.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua? Lantegiren batean lanean, bikotekidearekin eta seme-alabekin.
- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasteko; gainerakoan, mutil formala naiz.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Nahikoa askatasun ematen didate, ez dut horrelako taktiken beharrik; esan dudan moduan, mutil formala naiz-eta.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, laguntasunari.

• Zure bertute bat?

Nire lagunak lagun ona naizela; ahal dudan neurrian, lagunei laguntzeko prest egoten naiz.

• Eta hutsune bat?

Asko hitz egiten dudala, batzutan, gehiegi ere bai; behar ez den toki eta momentuetan ere hitz egiten dut, askotan.

• Zerk amorratzen zaitu?

Errespetua galtzen badidate asko haserretzen naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

[Denboraldi luzez pentsatzen egon eta gero...] Bada, ez dakit... ispilua apurtzen ez dudanean!

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?


Fisikoari dagokionez, janzkerari; gero, pertsona hori ezagutzea garrantzitsua da niretako.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Gustatu zaidan pertsonarengana hurbildu eta berarekin hitz egiten saiatzen naiz.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko hirugarren maila • ZALETASUNAK: Musika entzutea eta bizikletan ibiltzea • FILM BAT: 'Fallen' LIBURU BAT: 'El ciclo del hombre lobo' Stephen King-ena • MUSIKA TALDEA: Dead prez • KIROL TALDEA: Kirola egitea gustatzen zait, ez ikustea

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



## ZAHARREN ETXETIK

# Alargunen Elkarateak 25 urte egin ditu

EDU MENDIBIL

**B**ergarako Alargunen Elkarateak 25 urte bete ditu dagoeneko. 1970eko hamarkadaren amaieran Alkartu-Nairen ekimenez sortutako elkarateak herriko alargunen topaleku izaten jarraitzen du. Gaur egun, 81 bazkide ditu.

Debagoiengan eta Euskal Herrian sortutako lehenengotarikoa izan zen Bergarako, Nieves Beistegi lehen presidentea gogoratzen duenez. Udalaren, Alkartu-Nairen, herriko aurrezki kutxen eta hainbat partikularren laguntza ezinbestekoa izan zen elkaratea aurrera ateratzeko. Aitonak elkaratea San Joxepera joaterakoan, Alargunen Elkarateak hartu zuen seminarioko lokala. Hasiera hartan, 40 bazkide ziren eta urteko kuota 300 pezeta zen. Gaur egun, 81 bazkide ditu elkarateak eta 18 euroko kuota ordaintzen dute. Mertxe Lazkano da elkarateko presidentea azken bi urteotan, eta Maritxu Berasategi laguntzen dio.

Garai baten, sukaldaritza ikastaroak antolatzen zituzten,

arrakasta handiz, gainera. Era berean, herrian izaten ziren kultura eta kirol ekitaldietan parte hartzen zuten, ahal zuten guztietan. Maritxuk eta Mertxek esaten dutenez, "lehen, herrian ez zegoen horrenbeste talde, eta ahal genuen moduan laguntzen genuen. Gaur, berriz, Udalak eta beste talde batzuek betetzen dute gure lekua". Bestalde, duela urte batzuk, laga egin zioten urteko irteera egiteari, nagusiki, San Joxepe hilero antolatzen dituelako erretiratuendako irteerak.

**ABENDUAREN 8A, ELKARTEAREN EGUNA**  
Kartetan jokatzeko eta lagun artean egoteko egunero izaten da zabalik elkaratea. Normalean, seiak aldera joaten dira, batez beste, 15 bat lagun aste barruan eta 30 bat aste bukaeran. Askariak eta afariak ere egiten dituzte, gainerako elkarteen antzeko funtzioa betetzen du-eta.

Abenduaren 8an, Kontzesiño Egunean, ospatzen dute elkaratearen eguna, halako egun baten inauguratu zutelako. Lehen, elkaratean bertan bazkaltzen zuten, baina azken bi urteotan, Sirimiri jatetxean batu izan dira. Joan den abenduaren 8an, esaterako, 40 lagun elkartu ziren.



Urteroko bazkarian batutako alargunetako batzuk. Ezkerretik eskumara, Rosarito Garitano, Maritxu Berasategi, Matilde Beasakoetxea, Miren Sorozabal (Matilderen atzean, zutik), Arantxa Landa, Mertxe Lazkano, Garbiñe Irizar (makurtuta), Pilar Bian eta Nati Intza. Argazkia joan den abenduaren 8an ateratakoa da.



Juli Beistegi, Pastora Otadui eta Nieves Beistegi, elkarateko lehen presidentea izandakoa.

## Erretiratuendako ikastaroak UNED ikastetxean

E.M.

Atzo, eguna, urtarrilak 16, UNED ikastetxean erretiratuendako antolatutako ikastaroen lehen fasea hasi zen. Plangintza horren helburuetako bat pertsona nagusien kolektiboan kulturarekiko interesa piztea da eta, aldi berean, zaharren bizitza kalitatea hobetzeko urratsak ematea.

Lehendabiziko fasean, besteak beste, giza harremanak, osasuna eta bizitza kalitatea eta dietaren garrantzia lantzeko eskolak izango dituzte, eguenero, UNEDen bertan, 17:00etatik 20:00etara. Atzo hasitako zikloan hogeitaz lagunek dihardute. San Joxepeko arduradunak pozik azaldu dira ekimen horrek izandako erantzunarekin.

Etengabeko formazio programa, esan bezala, hiru fasetan banatuta dago, eta nagusien topaleku bilakatzeko asmoarekin jarri dute abian. Bigarren fasean Bergara, Debagoiena eta Euskal Herria hobeto ezagutzeko aukera izango da, otsailaren 27tik apirilaren 30era bitartean. Bigarren faserako hainbat bisitaldi gidatu egitea pentsatu dute. Hain zuzen

ere, Eskoriatzako Etnografia, Historia eta Historiaurrea Museoa, Gatzagako Gatz Museoa edo Urkuluko araztegia bisitatuko dituzte. Azkenik, hirugarren fasean informatika hasiera ikastaroak, tai-chi eskolak, musika edo pintura jorratuko dituzte erretiratuak. Hirugarren fasea maiatzaren 8tik ekainaren 12ra bitartean egingo dute.

## LABUR

### Inersoren Bainuetxe Programa martxan

Bainuetxe Programan parte hartzeko Ongizate Zerbitzura jo daiteke (943 77 91 65 zenbakia). Otsailetik abuztura bitarteko txandarako eskaerak urtarrilaren 21a baino lehen.



**GAZTELU**  
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**IBARGYREN  
PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako  
nekazal produktuak

**Biona**  
BANATZAILEA

San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein izen du San Migelgo baserri honek?

**PINTOREBERGARARRAKGAUR**


**Miguel Okina**

EDU MENDIBIL

**B**ergarak eman duen pintorerik ezagunenetakoa da Miguel Okina (1924). Gaztetan, Simon Arrietaren ikasle izan zen, eta Madrilen, Bartzelonan eta Parisen ere jardun zuen ikasten 1950eko hamarkadaren hasieran. Ofiziotik bizi ahal izan da, eta horregatik pribilegiatutzat dauka bere burua. Oraindik ere enkargu dezente egiten dizkiote, eta egunero pintatzen du Ramon Maria Lili kalean duen estudioan: "Guretako ez dago erretorik, eta lanerako gogoia eta ilusioa daukat". Paisaiak, natura hilak eta erretratuak landu izan ditu, nagusiki, eta 600 bat erretratu egingo zituela diosku, herriko pertsonaia askorenak, tartean: "Erretratua da zailena, aurpegiaren espresioa eta koloreenatik. Paisaiak eta natura hilak askeago pintatzen dira".

Hasieran, Simon Arrietaren eragina nabaria zen bere lanetan, baina poliki-poliki estilo propioa landuz eta hobetuz joan dela dio Miguel Okinak: "Urteekin ofizioa menderatuz joan naiz, baina oraindik ere gauza berriak ikasten ditut; izan ere, hori da politena".

*"Urteekin ofizioa menderatuz joan naiz, baina oraindik gauza berriak ikasten ditut"*



E.M.

**GALDEDEBALDE**

- 1.** Bergarako zein soprano hartuko du parte San Pedron egingo den organo zikloan?  
A/ Maite Aurrekoetxea.  
B/ Maria Jesus Ugalde.  
C/ Naroa Enekotegi.
- 2.** Nor izan zen Alargunen Elkarteko lehenbiziko presidentea?  
A/ Mertxe Lazkano.  
B/ Nieves Beistegi.  
C/ Maritxu Berasategi.
- 3.** Zeinekin batera jokatu zuen Gorka Martin pilotariak Gipuzkoako Kluben Arteko finala?  
A/ Ubera.  
B/ Peñagarikano.  
C/ Bengoetxea.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**ARANTXA EGAÑA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Arantxa! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Udaletxean eta Madalena plazan / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE ..... 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Colon detergentea**

36 ontzitxo + %15 doan

**8,90€**

1.481 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Radio Bergara**

Etxetresna elektrikoak  
Sakelako telefonoak  
Lanparak  
Opariak

**San pedro 25  
BERGARA  
943 76 19 89**

**Mujika  
gozotegia**



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. **BERGARA**  
Tel. 943 76 39 53



**ARRI**

Industri  
hornidura

Zubiaurre, 30  
**BERGARA**  
Tf. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.





#### ALBAITARIAK

- ARTZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19  
**BALDANA** Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545  
**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13  
**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13  
**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23  
**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46  
**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95  
**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77  
**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88  
**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54  
**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65  
**TRIPALDI Enrike** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71  
**BASTERRETXE, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

#### HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43  
**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78  
**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

#### MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

#### PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84  
**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80  
**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13  
**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

#### YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 17a / 142. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## KZGunea ez dute irekiko urtarrilaren 29an

AINTZANE IRIZAR


Udaleko arduradunen asmoa zen urtarrilaren 29an zabaltea KZGunea, Oларanen, eta halaxe azaldu genizuen aurreko asteko KONTUOLAn. Azkenean, baina, hainbat gorabehera direla eta, atzeratu egin behar izan dute Interneteko gune hura zabalteko eguna.

Kontua da hainbat gorabehera dituztela telefonia konpainiekin. Eta, hala, horiek konpondu arte ezin izango dute KZGunea abian jarri. Ez dakite noiz zabaldu ahal izango duten. Dena dela, aurrera jarraitzen du egitasmoak, eta Oларan etxeko lehenengo solairuan jarriko dute KZGunea, hasiera baten, bederatzi ordenagailurekin.

### HELBURUA, INTERNET EZAGUTZEA

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako plan baten barruan sartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko herrietan Konekta Zaiter guneak jartzea. Plan horren helburua da herritarrei Internet ezagutze eta erabiltzen ikasteko aukera ematea.

Horretarako, hainbat ikastaro antolatuko dituzte, eta KZGunea zabaltean duten egunean bertan hasiko dira. Doakoak izango dira, gainera, ikastaro horiek. Oraindik KZGunea noiz zabalduko duten ez jakin arren, bada- go ikastaroetarako izena emateko aukera udaletxeko bulegoetan. 22 ordukoak izango dira



Udaleko arduradunen nahia da KZGunea ahalik eta lasterren zabaltea.

ikastaroak, eta 11 egunean eskainiko dituzte. Ordenagailua bera eta Internet erabiltzen ikastea izango da eskola horien helburu nagusia.

Ikasleek Interneten gainean dakitenaren arabera hainbat talde osatuko dituzte. Ikastaroek irauten duten bitartean bederatzire ordenagailu egongo dira Oларango KZGunean. Behin ikastaroak bukatuta, bost bat ordenagailu geratuko dira, eta nahi duten herritar guztiei zabalduko

dizkiete KZGuneako ateak, Interneten nabigatu, txateatu eta e-postak bidali edo jaso ditzaten. Herritarrek, gainera, norik bere e-posta helbidea izateko aukera edukiko du. Zerbitzu horiek guztiak ere, ikastaroen moduan, doakoak izango dira. Hori bai, erabiltzaile bakoitza ordubetean bakarrik ibiliko ahal izango da ordenagailuetan; horren ondorioz, ahalik eta herritar gehienek izango dute zerbitzuaz gozatzeko aukera.

## ALARDEA

## Alardea, 1934ko 'ABC'-ren azal baten

AINTZANE IRIZAR

ABC egunkariaren 1934ko ale bat jaso zuten udaletxean joan den astean, egubakoitzean. Urte hartako abuztuaren 31ko egunkari-ko azaleko gaia Antzuolako alardea izan zen.

Mallorcatik jaso zuten alea; hain zuzen, hango herrixka bateko arrantzale batek bidali zien. Egunkariarekin batera bidalitako gutunean azaltzen duenez, antzinako dokumentu, egunkari eta horrelakoak irakurtzeko zale- tasuna dauka; horretan ari zela aurkitu zuen ABC egunkariaren ale hori. Bi aldiz pentsatu barik,

Interneten Antzuolaren gaineko informazioa topatu eta alea udaletxera bidaltzea pentsatu zuen.

Udaleko arduradunek azaldu digutenez, ilusio handia egin zuten opariak. Gainera, egunkariaren ale orijinala bidali die. Mallorcatiko gizon horri eskerrak eman eta Antzuolaren gaineko liburuguztiak opari egiteko asmoa du Udalak.

ABC-ren azalean eta barruan azaltzen diren bi argazkiak, gainera, ez dituzte udaletxeko artxiboan. Eibarko Ojangueren argazkilariarenak dira erretratatuak eta horiek lortzen ahaleginduko dira Udaleko arduradunak.

DIARIO ILUSTRADO. AÑO TRIGESIMO. 10 CENTS. NUMERO 3333

# ABC

DIARIO ILUSTRADO. AÑO TRIGESIMO. 10 CENTS. NUMERO 3333



Mallorcatiko gizon batek bidali du udaletxera 1934ko abuztuaren 31ko ale hau.



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxe:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89


MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



Pintxoak eta  
kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

**ELKARRIZKETA**



A.I.

**MIKEL BARGIELA/GALIZIAN BOLUNTARIO IBILI DA**

*“Herritik hiru lagun joan ginen Galiziara boluntario”*

A.I.

**B**este hainbat euskaldun bezala, Galizia aldean ibili da Mikel, boluntario. Mondragon Unibertsitateak abenduan antolatutako autobusean joan zen, eta bi egun egin zituzten Galiziako hondartzetako zikinkeria batzen.

**Zenbat lagun joan zineten Antzuolatik?**

Hiru lagun joan ginen: Iban Unanue, Alberto Caceres eta hirurok. Ibanek eta Albertok ETEOn ikasten dute; haiek deitu zidaten, Mondragon Unibertsitateak Galiziara joateko autobusa antolatu zuela eta, ea animatzen nintzen. Horrelaxe erabaki nuen joatea.

**Aita galiziarra izateak, beraz, ez du zerikusirik izan?**

Ez, egia esan, ez; gainera, gure aita Galiziako beste zona batekoa

da, Rias Baixasekoa, hain zuzen. **Hara iritsitakoan, zein izan zen lehen inpresioa?**

Gauean, berandu iritsi ginen. Hurrengo egunean, eguerdi aldean iritsi ginen hondartzara, eta inpresioa oso txarra izan zen: haitzak beltz-beltz eginda, hondartza bera ere bai...

**Zein izan zen zuen lana?**

Lehendabiziko egunean, Carnotako hondartzan ibili ginen. Nahiko garbi laga genuen. Eta hango lana bukatutakoan, beste batera joan ginen; batez ere, haitzak garbitzen ibili ginen han, baina ez zen lan erraza izan.

**Zein da galiziarren egoera?**

Egia esan, ez genuen harreman handirik izan hango jendearekin, eta pena horixe daukat. Iluntzetan irteten ginen buelta-txo bat ematera, baina ez genuen hango kaltetuekin lasai berba egiteko aukerarik izan.

**IRAKURLIAREN TXOKUA**

**LOKALEN INGURUAN**

Lokalen inguruan sortu den eztabaida dela eta, AGAk (Antzuolako Gazte Asanblada) honako hausnarketak helarazi nahi dizkie Antzuolako herritarrei:

Azkenaldian koadrilen erabilpen pribaturako eskatu diren lokalek ez diete herriko gazte guztien beharrei erantzuten.

AGAk betidanik egin duen aldarrikapena gazte guztiendako eta guztien beharrak aseko dituen lokal bakar baten aldekoa da, gazteen esku geratuz lokal horren ustiakuntza zela eta zergatik egin.

Gazte guztiendako lokal batek koadrila guztietako kideen arteko harremanak sendotu eta aberastu behar ditu, eta azkenaldian aipatzen ari diren lokalek ekarriko luketen ondorioa guztiz bestelakoa litzateke: koadrilen arteko urruntzea.

Amaitzeko, AGAk deia luzatzen die gazte guztiei, bertan parte hartu eta iritziak elkarbanatzeko, bai une konkretuetan gai konkretuei buruz, baita iraunkorki ere. Ostiraletan, 19:15etan, egiten diren batzarretarako gonbidapena luzatzen dizue AGAk.

ANTZUOLAKO  
GAZTE ASANBLADA



**Azidoa galdu zuen kamioi batek**

Astelehen eguerdian, 12:15ean, ezustekoa izan zuten Antzuolako saihesbidean. Kamioi batek azido nitrikoz betetako bidoiak zeramatzan; bidoiak kamioi barruan erori eta azidoa errepide bazterrera erori zitzaion. Suhiltzaileek jaso zuten azidoa, eta 16:00ak ingururako garbitu zuten ingurua. /A.I.



**Karta-joko txapelketa jubilatuetan**

Joan den hilean jokatu zuten, ohikoa denez, erretiratuen arteko karta-joko txapelketa. Puntuoan 11 bikotek parte hartu zuten; briskan, zazpik, eta tutean eta musean, bosna bikotek. Argazkian txapelkun guztiak agertzen dira: Eduardo Etxaniz, Maria Angeles Nuin, Beatriz Gabarain, Miguel Jauregi, Jesus Alzelai, Manuel Garitano, Sebastian Segovia eta Eladio Morais. /A.I.

**KIROLA**

**PARTIDUAK**

**FUTBOLA**  
Urtarrilak 18  
16:00: Antzuola-Gazteak (2. erregion.)

**PILOTA**  
Urtarrilak 17  
19:30: Olalde-Hernani (infantilak)

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Antzuola 4 Dunboa 3 (Gazteak)  
Erregionalekoen partidua bertan behera geratu zen

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



*Juan Cruz*

**ARGAZKIAK**

Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak

**BITXITEGIA**

Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko urtarrilaren 17a / 126. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


## Gaizkile elkarteko kide izatea leporatu die epaileak Ane Miren Alberdi elgetarrari

OXEL EROSTARBE

Aurreko barikuan, Ane Miren Alberdi atxilotu zuten, Akizen. Lau egunean inkomunikatuta egon ondoren, martitzenean, epailearen aurrean deklaratu zuen. Ane Mirenekin batera Kristina Goirizelaia eta Carlos Sáez de Egilaz atxilotu zituen poliziak.

Orain dela astebete, Landetako Akize herrian atxilotu zituen Frantziako poliziak Ane Miren Alberdi, Kristina Goirizelaia eta Carlos Sáez de Egilaz. Lau egunean inkomunikatuta eduki ondoren, martitzen arratsaldean, Laurence Levert terrorismoaren aurkako auzien ardura daraman epailearengana eraman zituzten ustezko hiru ETAkideak.

**POLIZIAREN BORTIZKERIA SALATU DUTE** Frantziako Barne Ministerioren esanetan, Polizia Judizialeko indar bereziek atxilotu zituzten hiru kideak. Horrekin, ustezko hiru ETAkideak kontrol arrunt baten atxilotu izana gezurtatu zuen. Bestalde, atxilotuek abokatuari azaldu diotenez, poliziak bortizkeria erabili zuen atxiloketa



Zabaletakoa da Ane Miren. Eta Elgetan ez bezala, Bergaran batzar informatiboak egin dituzte haren egoeraz informatzeko.

egiteko. Goirizelaia kolpe ugari hartu zituen buru aldean eta kokotsean. Dena dela, euren abokatuak adierazi duenez, osasunez ondo daude.

### GAIZKILE ELKARTEKO KIDE

Terrorismoaren aurkako auzien ardura duen epaileak, Laurence Levertrek, gaizkile elkarteko kide izatea leporatu die hiru atxilotuei.

Lapurtutako automobila erabiltzea, armak edukitzea eta nortasun agiri faltsuak eduki eta erabiltzea ere egotzi die epaileak. Atxilotutakoei 70.000 euro atze-

man zien poliziak. Epaileak daki eurook nondik lortutako ziren eta zertarako ziren. Hala dela eta, ezin izan die egotzi etsio fondoetatik lortutako diru edukitzea.

### ESPETXERATZEKO AGINDUA EMAN DUTE

Auzipetzea baieztatu ondoren, hiru atxilotuak espetxeratzeko agindua eman zuen epaileak. Espetxeratzeko agindua eman dagoen arren, lerro hauek bertarako orduan ez dakigu Ane Miren eta gainerako atxilotuak zein espetxetara eraman dituzten.

Atxilotu zuten unetik inkomunikatuta egon da Ane Miren. Familiak ez du haren berri izan, ezta non zegoen ere.

### ELGETAN, INFORMAZIO GUTXI

Zabaleta auzoan jaiotako Ane Miren Alberdi, eta urte luze iraun eginda dagoela. Elgetan barikua arratsaldean jakin genuen atxilotua izan zela: Ane Miren askatu zioten kartelak izan diren haren egoeraren gainean Elgetan eman den informazio bakanak. Udaleko bi alderdiek esan diotenez, epe laburrera ez dute haren berri izan. Berezirik egitea pentsatu

## EZBEHARRA EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEAN

### Auto ilarak, trafikoa Elgetatik bideratzean

Eibar-Gasteizko lanetan izandako ezbeharraren ondorioz, egunotan Elgetatik desbideratu dute handik pasatzen zen zirkulazioa. Horren ondorioz, herritik pasatzen den ibilgailu kopurua hamar aldiz handiagoa da orain. Eta horrek auto ilara luzeak eragin ditu. Arazo larrienak goizean eta iluntzean izan dira, batez ere, Eibar eta Elgeta arteko errepedean. Astelehenean goizean, lau kilometro inguruko auto ilara sortu zen; ibilgailuak Elgetatik Arratzoko bihurgunera iristen ziren.

Arazoa konpontzeko, zirkulazio handien izan den orduetan ertzainek jardun dute. Eta gainerako orduetan semaforoek bete dute lan hori. Diputazioko arduradunak arazoa aste bukaerarako konponduta egongo delakoan daude.

### HIRU ISTRIPU, ELURSAK ERAGINDA

Aste bukaerarako iragarrita zegoen elurtea ez zen horrenbeste izan, eta zapatuan bakarrik eragin zituen arazoak. Elurraren eraginez, hiru istripu izan ziren Eibarrerako errepedean.



Webgunearen bidez errepedeen egoeraren gaineko informazioa eman du Udalak.

## LABUR

### Ostiada oi! Isiltasuna apurtzen diskuan

Astian aurkeztu dau Berorako gaztetxeko Astindua taldeak. Taldeak herriko musika talde baten kantuekin grabatu daben diskua. Isiltasuna apurtzen diskuan batu dituen talde baten artian, Elgetako Ostiada oi! taldearen Skinhead taldeak dago.

Eta diskuan parte hartu daben musika taldeen baten tzeruak izango dira aste bukaeraren. Ostiada oi! taldeak berriki (zapetua) jaialdixan parte hartuko dau parte. Jaialdixan 2000etan hasiko da.

ELKARRIZKETA

REBEKA UBERA ETA TOMAS AGOTE/MAYA INGURUMEN TALDEKOAK

*“Hirigintza eta ingurumena bide beretik joan behar dira, eta gure herriko politikoez ez dute ezer egiten hala izan dadin”*

O.E.


Urtarrilean aztertuko du Udalak arau subsidiarioen aurrerapena. Maya Ingurumen Taldeak ez ditu begi onez ikusten arauok. Tomas Agotez eta Rebe-ka Uberak arauen gainean dituzten zalantzak azaldu dizkigute.

**Zeintzuk dira hasi berri dugun urterako erronkak?**

Erronka nagusia arau subsidiarioak dira. Arauon aurrerapena hil honetan bertan onartuko du Udalak. Bertan ingurumenak merezi duen lekua izatea gura genuke. Hori dela eta, zenbait proposamen egin dizkiogu Udalari. Baina proposatutako zenbait gai bere eskuetan ez daudela esan digu Udalak. Beste erakunde batzuek bezala, Udalak ere ingurumena zaintzeko zerbait gehiago egin dezakeela uste dugu. Arau subsidiarioetan herriak etorkizunean izango duen egitura aztertzen da. Gure ustez, hirigintza eta ingurumena bide beretik joan behar dira. Herriko politikoez hirigintzan dute burua. Ez dute ezer egiten ingurumenak eta hirigintzak bide bera egin dezaten.

**Zein aldaketa egin beharko liriateke ingurumena behar bezala errespetatzeko?**

Lehenik eta behin, esan gura genuke Udalak lantzen diharduen



O.E.

arau subsidiarioen aurrerapena ez duela inolako eraginkortasunik. Arau horiek oraingoz onartu ez den Debagoieneko PTP (Plan Territorial Parcial) delakoan oinarrituta daude. Ez dugu uste PTP onartuta egon arte arau subsidiarioen berriztapena onartzea bide egokia denik.

Arau subsidiario berriek Elge-

*“Ingurumen ikerketak emandako emaitzak ez dira kontuan hartu arau subsidiarioetan”*

ta hiri moduan hartzen dute, herri moduan barik. Gure ustez, Elgeta herria da, herria, zentzu osoan. Udalaren proposamena aurrera eramanez gero, herria gaur egun denaren bikoitza izango litzateke. Horrek landa eremua txikituko luke, eraikinen, fabrikaren eta azpiegituren mesedetan. Elgetak izango duen hazkuntza

errealarekin harreman zuzenean bada, etxebizitzak eta behar diren azpiegiturak eraikitzearen aldekoak gara.

Ur saneamendua hobetu egin beharko litzateke, Elgetako urak zuzenean doaz eta Deba ibaira; telekomunikazioei dagokienez, antena guztiak Azkonabitan jarri beharko liriateke; berdeguneak hobeto zaintzea ere zehaztu behar da. Urtetan eskatu dugu San Roke ostean autoak sar ez daitezzen mugarrak jartzea; Debagoieneko beste udal batzuek egiten duten moduan, olioaren bilketaz ere Udala arduratu beharko litzateke. Herritarrak ingurumena zaintzearen aldekoak dira. Udalak, berriz, *ingurumena* berra entzun orduko beste erakunde baten eskumena dela esaten du. **Udalak Agenda 21 lortzeko bidea egin du. Ingurumen ikerketa eginga dago.**

Egia da Udalak Agenda 21 aurrera eramatea erabakita duela. Irudi kontua dela uste dugu. Eta ez, ingurumenari merezi duen garrantzia eman nahi diolako. Bestela, zergatik ez dute publiko egin ingurumen ikerketak dioena. Ikerketak eman dituen emaitzak ez dira kontuan hartu arau subsidiarioak idazterako orduan.

Energia alternatiboen aukerak lantzeko, Energia Agentzia Lokala sortu behar luke Udalak.

KIROLA

**Iazko postua hobetu du Jone Muxikak**

O.E.

Aurreko zapatuan, Asturiasen jokaturako Espainiako Ziklokros Txapelketan zortzigarren izan zen Jone Muxika elgetarra. Iazko hamargarren postua hobetzea zuen helburu Jonek. Hala, helburua lortu arren, Jone ez zegoen oso gustura egindako lasterketarekin. Gauzak hobeto egin zitzaizkeela uste zuen Alfa-Deco taldeko txirrindulariak. Elgetarra Aida Nuño irabazlearengandik 2 minutu eta 29 segundora iritsi zen helmugara. Eta bigarren euskalduna izan zen.

Bestalde, etzi, domekan, Muxikan izango den lasterketan parte hartuko du Jonek. Eta datorren astean Ispasterren izango da. Horrela, lasterketa horiek amaituko du ziklokros denboraldia Jone Muxika elgetarrak.



O.E.

Jone Muxika, Alfa-Decoko txirrindularia.

**ERREPIDEAN PROBATU NAHI DU**

Orain arte ziklokros eta mendi bizikleta lasterketetan hartu du parte Jonek. Aurten, ordea, errepidean zenbait proba egiteko asmoa dauka. Noiz izango den, ordea, ez du aurreratu.



**Arazo haundirik ez, edurra dala-eta**

Norberak kaso egiten dotsan eguraldi jakittunaren arabera, modu batera edo bestera biziko zittuan aurreko asteko edur egunak. Arantzazuko frailliak, Pello Zabalak, asmatu egin dau. Harek esandako moduan, hotz egin dau eta edurra be, tamaiñuan. Elgetan ez da arazorik egon, eta bidiak be garbi egon dira. Mendixetako edurra be urtu da honezkerok./O.E.

LABUR

**Jai batzordearen lehenengo batzarra, hilaren 22an**

Datorren eguaztenean, hilak 22, 21:00etan, ekingo dio Jai batzordeak aurtengo Ferixa Nagusietako egitaraua gertatzeari. Herritar guztiak batzarrean parte hartzea gonbidatu nahi ditu Jai batzordeak, nor bere ekarpenak egin eta gero egitaraua zehaztuz joateko.

Aurtengo Ferixa Nagusietako egitaraua 3an, 4an, 5ean eta 6an izango dira. Jai batzordetik esan digutenez, aurtengo jaiak bereziak izango dira. Euren asmoa da adin guztietako elgetarrekin osatutako danborrada antolatzea. Dena dela, danborrada zelan eta non egin erabakitzeke dago oraindik, baita entseguen noiz hasiko diren ere.

Jaiaren gainean ekarpena egin nahi dutenek datorren eguaztenean dute hitzordua.

## ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Arbolian eguna  
Asentzion  
egin zanekua

Urtero egitten da gure herrixan Arbolian eguna. Gurasuak seme-alabei arbolak zelan sartu bihar diran eraskusten dotse. Atxurra hartu, lurrian zuluia egin, arbola gaztia hartu, zuzen ipiñi, zuluia lurraz tapau, eta inguru dana ondo zapalduta laga. Horrek dira egin biharrekuak, eta hala erakusten dotse nagusixek umiei.

Hau erretratuau oin dala 20 urte ingurukua da. Asentzion egin zan Arbolian eguna. Erretratuan ikusi geinken lagunen atzian dago han egunian sartutako arboletako bat. Umiak eta gurasuak arbolia sartzeko erabilitako atxurrak daukez eskuetan.

Honek agertzen dira ondoko erretratuan, goixan: Juan Luis Ubera eta Jose Antonio Retolatza; eta behian: Rebeka Ubera, Idurre Arantzeta, Aitor Ubera, Maite Retolatza, Eñaut Arantzeta eta Iban Retolatza.

Urtia: 1981



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zataz BERRIGARa (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

Mendizalien  
plazia

Plaziak daukan izenak gogoratzen dau Euskal Herriko Mendi Federaziñua Elgetan sortu zala. Hemen bi erretratuetan ikusi geinke plaziak azkeneko 20 urtietan euki daben aldaketia.

Plazia bizixagua da bankuak eta arbolak darenetik. Herriko erdigunia izan da beti plazia, eta gaur egunian be halan izaten jarraitzen dau: goiko eta beheko kalietakuak batzen diran gunia.



≈ 1980

Urtietan farolia izan zan plaziak zeukan apaingarri bakarra. San Roke kaleko adokin zaharra be ikusten da erretratuan.



2003

Plazan arbolak eta bankuak ikusten dira. Honek bizitasuna emoten dotsela ezin ukatu. Farolia be barik, sei dittugu gaur egunian.



**umelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA



# Elkarrekin hazi, hezi eta bizi euskaraz

Aranzadi ikastolan matrikulazio epea zabalik

**Urtarrilaren 27tik otsailaren 10era**

HAUR HEZKUNTZATIK BATXILERGORA



**ARANZADI**  
IKASTOLA



**HERRI ONURAKO**  
**IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA**



San Martin plaza 4. Tel. 943 76 90 71. Faxa: 943 76 91 77. [bergara@aranzadiikastola.org](mailto:bergara@aranzadiikastola.org)

# 1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**902 010 735**  
Telefona 24 orduz.

**+ DOAN**



**euskal selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan  
bidaltze  
gasturik gabe



**35,95**  
euro

Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa

**DOAN**

**Imajina dezakezun guztia!**

- Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!
- Aukera ezazu taktikarik egokiena
- Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...
- Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
- Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
- Jokoaren estatistikak
- Jokaldi onenen errepikapenak...
- Lau futbol zelai aukeran.
- Partiduak egunez, gauez, euriarekin...